



**EEPF**

EUSKADIKO EUSKAL PILOTA FEDERAKUNTZA



## **OSTEGUNEAN HASIKO DIRA EUSKAL LIGAKO FINALERDIAK**

Orduan larruzko paleta eta Ohorezko Mailako eskuz binakako partida bana jokatuko dira

Ostegun honetan bertan hasiko dira pilota munduko txapelketa garrantzitsuenetariko baten finalerdiak, hau da, Kluben Arteko Euskal Ligakoak, izan ere, asteburu osoan zehar kanporaketak ospatuko dira hainbat herrialdetan.

Kantxara aterako diren lehenak larruzko paletako Zidorra eta Adurtzako taldeak izango dira, horiek ostegunean neurtuko baitira Abetxukoko frontoian 19:00etan hasiko den Ohorezko Mailako norgehiagoka batean.

Apur bat beranduago, 21:00etan, hain zuzen ere, kasu honetan eskuz binakako Ohorezko Mailan, txapelduna den Usurbilgo Pagazpek Arabako Txukun Lakua hartuko du. Maila honetako beste finalerdia ere Gipuzkoan izango da ikusgai, ostiralean, Azpeitian, Ilunpe eta Hernani aurrez aurre egongo baitira 19:00etatik aurrera.

Pagazpek ordezkari bat ere izango du eskuz banakako nagusi mailan, baina modalitate honetan Zazpi Iturriren emaitzak nabarmentzekoak dira, nagusi mailako EH Ligan, eskuz binakako 22 urte azpiko mailan eta banakako gazte mailan pilotariak sartu dituelako. Gainera, 22 urte azpikoari dagokionez klub honetako bi talde sailkatu dira bigarren fase honetarako.

Ligaxkako azken jardunaldiko emaitzak, astebururako ordutegiak eta kanporaketa guztiak atxikita dauden dokumentuetan ikus daitezke. Finalak hurrengo astean jokatuko dira, martxoaren 10 eta 12an, hain zuzen ere.



## EL JUEVES EMPIEZAN LAS SEMIFINALES DE LA LIGA VASCA

Este día se disputarán un partido de paleta cuero y otro de División de Honor de mano parejas

Este mismo jueves arrancarán las semifinales de una de las competiciones de referencia del panorama pelotístico, como es la Liga Vasca de Clubes, y que se disputarán a lo largo de todo el fin de semana en diferentes herrialdes.

Los primeros en saltar a la cancha serán los conjuntos de paleta cuero de Zidorra y Adurtza, que se enfrentarán en una eliminatoria de División de Honor que arrancará el jueves a las 19:00 horas en el frontón de Abetxuko.

Un poco más tarde, en concreto a las 21:00 horas, y en lo concerniente a la División de Honor de mano parejas, el campeón Pagazpe de Usurbil recibirá a los alaveses de Txukun Lakua. La otra semifinal en esta categoría también se celebrará en Gipuzkoa, puesto que el viernes en Azpeitia, a las 19:00 horas, se verán las caras Ilunpe y Hernani.

Pagazpe contará a su vez con un representante en mano individual senior, aunque en esta modalidad caben destacar los resultados de Zazpi Iturri, que ha colado a pelotaris en la segunda fase de EH Liga senior, parejas sub'22, donde tiene dos equipos, e individual juvenil.

Los resultados de la última jornada de la liguilla, los horarios para este fin de semana y los emparejamientos se pueden consultar en los documentos adjuntos a esta noticia, mientras que las finales están programadas para la semana que viene, en concreto para los días 10 y 12 de marzo.



EUSKADIKO EUSKAL PILOTA FEDERAKUNTZA

**EEPF**

